



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO PROBAK

2010eko EKAINA

PRUEBAS DE ACCESO A LA UNIVERSIDAD

JUNIO 2010

MARRAZKETA ARTISTIKOA II

DIBUJO ARTÍSTICO II

Azterketa honek bi aukera ditu. Horietako bati erantzun behar duzu.

Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jartzea.

- Azterketak marrazketako bi proba ditu, eta ordu bat eta erdi duzu biak egiteko.
- Proba bakoitzak 5 puntu balio du.
- Papera (50 x 70 cm eta A3) eta 4B grafito bat emango zaizkizu; hala ere, beste edozein tresna erabil daiteke.

Este examen tiene dos opciones o montajes. Debes elegir uno de ellos.

No olvides incluir el código en cada una de las hojas de examen.

- El examen supone la realización de dos pruebas de dibujo en 1 hora y treinta minutos
- La valoración es de 5 puntos para cada una de ellas
- Se aporta papel (50x70 cm. y A3) y un grafito 4B, pero puede utilizarse cualquier otro útil



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2010eko EKAINA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JUNIO 2010

MARRAZKETA ARTISTIKOA II

DIBUJO ARTÍSTICO II

A/B AUKERA

1. MODELO ERREAL BAT, eskua altxatuz, MARRAZTEA, oinarritzko forma geometrikoekin eta objektuekin egindako muntaketa batean oinarrituta. 5 puntu

Bi muntaketa aurkezten dira.

Marrazkia egiteko, material hauek dituzu: 4B grafito bat eta 50 x 70 cm-ko papera.

Egin behar duzun marrazkiak mahaiaren gainazala eta mahai gainean dauden objektuak besterik ez du laukiratu behar.

Modeloa argiturik dago formen eta espazioaren pertzepzioa errazteko, baina ez da beharrezkoa argi-iluna aztertzea. Multzoaren marrazki lineal bat zirriborratzea eskatzen da.

Alderdi hauek hartu behar dituzu kontuan:

- Hautatutako laukiratzearen arabera, papera nola jarriko duzun (horizontalean edo bertikalean) erabaki.
- Marrazkia egiteko eremua ondo aukeratu, azalera ongi aprobetxatzeko eta konposizio egokia egiteko irizpideak kontuan harturik.
- Modeloaren irudikapen espazial egokia erabili: horizontea, ihesbideak, eskortzoak, gainjartzeak eta proportzioak.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK:

- Perspektiba.
- Laukiratzea eta formatua.
- Eraikuntza eta proportzioak.
- Eraginkortasun grafikoa.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO PROBAK

2010eko EKAINA

PRUEBAS DE ACCESO A LA UNIVERSIDAD

JUNIO 2010

MARRAZKETA ARTISTIKOA II

DIBUJO ARTÍSTICO II

2. ERAIKUNTZA-MARRAZKIA. 5 puntu

Behar duzun beste DIN A3 paper edukiko dituzu, eta nahi duzun beste edozein prozedura grafiko erabil dezakezu.

3Dko marrazki bat egingo duzu. Aukeratu duzun muntaketako objektu bat hautatu dugu eta, abiapuntu gisa, horri buruz ematen dizugun informazioa erabiliko duzu. Objektuaren konfigurazioa deskribatzen duen irudia egin behar duzu. Irudiak objektuaren geometria eta proportzioak nabarmenduko ditu.

Barruko erlazioak azaltzeko, gardentasunak erabil ditzakezu; bai eta hizkuntza grafikoa ere, osagarria eta azken emaitza bereizteko edota agerikoa eta ezkutua bereizteko. Halaber, deskripzioa errazten duen beste edozein laguntza ere erabil dezakezu.

Fase honetan ez da balioetsiko paperaren gainazalaren erabilera, hau da, formatuan ongi sartzea, baizik eta analisia eta marrazkiaren ezaugarri eraikitzaileak eta deskribatzaileak.

Alderdi hauek hartu behar dituzu kontuan:

- Objektuaren neurriak eta forma ulertzeko, analisia egin eta beharrezko informazioa jaso: oinarritzko bolumenak, ardatzak, simetriak...
- Objektuaren forma-egiturari ez dagokion guztia alde batera utzi: testura, kolorea, eta formazko xehetasun txikiak edo konplexuegiak.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK:

- Eraginkortasun grafikoa eta deskriptiboa.
- Konfigurazioa eta proportzioak.